

«Gure kantu zaharrak kontserba ditzagun...»

Zinez, xoragarriki, iragan da Oxtikenean, Uztailaren 12an, «Kantu zahar ez ezagunaren eguna». Hor 70 bat pertsona bildu ziren mahain baten inguruan, denak elgarrekin beren bozak juntatzeko. Hastapenean, Mixel Mendibouren sar-hitzak eman zaunkun bi gogoeta egiteko mamia: «*Ikusi ditugu, paper zaharrak, berdin xaramelak, urteekhorituak, hantxe ederki plegatuak mihise tartean gordeak. Ia pipiek unkitzen hasiak, bainan hitzak salbatuak, ezin hunkituak balire bezala. Funtsean egiaz hala baita. Ikusi ditugu, ez daki nungo buru muina zokotik kantuak gogoz emaiten...beren burasoeri entzuna eta ikasiak...*».

Zazpi orenez kantu eta kantu

Baginakien Euskal Herriko kantu guzien altxorra izigarri aberatsa zela, bainan ez dugu oraino bere zola unkitzekotan, ikusiz Oxtikenean zonbat kantu ez ezagun entzun ditugun, bertze kantu klaziko guzien erdian... Kantari zonbait, behatu ahal izan ditugu, zazpi orenez, arratsaldeko bietarik 9ak arte, eta oraino beren "errepertorioa" ez zaukaten

segur bururatua...

Aipamen berezi bat, Raphael Parejo, Euskal Musikaren Ikerlariari, Jakes Larre, Euskal Kultur Erakundeako Kantuaren arduradunari, bai Idoia Larzabal, "Gure Irratia" Irratiako animatzaileari, hauek, buruen buru, grabatu dituztelakotz, egun hortan, eman diren kantu guziak.

Herriko kantari andana bildu zen

Esku zarta beroenak merzei dituzte ere kantari hauek guziek: Aramendi Jaun Anderea Biarritzekoak, Bergara Ganix "Txistu", Bessonard Jean Noël, Billon-Zamora Fifine, Bonnet-Jeannou Gracie, Bonnet-Borthaire Angèle, Borda Pierrot, Brave Martxel, Dokelar-Ferreroineko anai-arrebak, Dufau Bidartekoa, Elhorga Laurent, Etxeverry Ernest, Fagoaga Gabi, Fagoaga Pello, Lazkano Jan Pier, Mendiboure Paxkal, Minaberry Urkoikoa, Peyrouet Behauzekoa, Soudre Jan Pier, Tapia Janbattit, Txomin Arbonakoa, Zamora Benane...

Arratsalde partean agertu ziren ere denen plazerarentzat, Joana Gabarrus,



"Matxin" pertsulari Senper tar zenaren alaba, bai ta Mayi Dokelar-Hourcastagné, bere bozaz, hain famatua ezagutu duguna Senperen.

Pentsatzen da, egun batez, liburu bat eta CD bat bildu kantu zahar guziekin, ager taratzea, pentsatzen ere, aurt en bezala, datorren urtean,

gertakizun bera, Oxtikene koe, erreberrituko dutela, Euskal Kultur Erakundeak, Ttipi Ttapa eta Kutxa ban kuak lagundurik...

Oraino esker mila eta gehiago, kantu bazkarian zori oneztatu gaituzten guzietan... eta agian, "heldu den" urtea arte...



Auxin Zamora
1999 / 07 / 13

Antolatzaile, gonbidatu eta kantariak, denak batera egun zoragarri baten buruan, Oxtikenea elkartearen atarian